

6.Kanalak

Bezeroek bi modu izango dituzte gure produktuak erosteko: Gasteizko El BouleVard merkataritza gunean kokatuta dagoen denda fisikoan edo gure enpresaren webgunean.

Gure webgunean erosiz gero, nahi duten bezala pertsonalizatzeko aukera izango dute. Baina, aukera hau hartzean, erabaki egin behar dute, dendara etorri nahi duten produktuaren bila edo bere etxeetara eramatea nahiago duten. Normalean 24-48 orduetan heltzen dira produktuak.

Denda fisikoa, astelehenetik larunbatera, irekita egongo da. Dendaren ordutegia goizeko 10:00etatik gaueko 21:00etara izango da. El Boulevard-ko lehenengo solairuan kokatuta egongo da. Leku honetan jartzea erabaki dugu leku oso igarotsua delako. Bezero asko ditugunean, denda gehiago irekiko ditugu, Espainako beste zenbait hiribuetan.

Gure produktua ustatuko dugu, sare sozialeetan, gaur egun produktuak ezagutarazteko modu erakargarri eta interaktiboa delako. Bertan jarriko dugu egiten dugun guztia, produktu berri bat ateratzen badugu, denda berri bat irekitzen badugu edo deskontuak egiten baditugu. Gainera gure bezeroek, bitxiekin egindako argazkiak eta beraien esperientziak gurekin partekatu ditzakete, beste batzuentzako eredugarriak izan daitezen.